

XagunArtea

2010eko apirilaren 19a

Xagun aldizkaria

52. alea

Untsulategiko Antonio bolarien Lehendakari



Untsulategiko Antonio Alustizak irabazi du aurtengo Lehendakari Bola Txapelketa. Bost tiralditara jokutzen da lehiaketa hau. Mutiloa, Lasarte, Idiazabal eta Ategorrietako saioen ondoren Zeraingo azken tiraldira Antonio iritsi zen lehen postuan. Apirilaren 18an jokatu zen tiraldia Jose Mari Ugartek irabazi zuen, baina Lehendakari txapelak ez zion ihes egin Antoniori. Orain bi bola-lehendakari ditugu herrian: Antonio txapelketakoa eta Luis federaziakoa.

Festak eta urtekaria prestatzeko bilerak



Udaberria aurrera doa eta urteko garai honetan, herriko festak antolatzen hasteko eta urtekaria egiten hasteko garaia iristen zaigu. Andra Maritan festarik egingo bada eta urtekaririk izango badugu, aurrez egin behar izaten da lana. Aurtengoak prestatzen hasteko, bi bilera egingo dira apirilaren 23an, ostiralez. Arratsaldeko 6:30etan urtekariaren lehen bilera egingo da eta 7:15ean, festak prestatzeko. Oa Kultur Elkarteak dei egiten die zeraindar denei bilera hauetan parte har dezaten.

San Isidro eguna ospatzeko bazkaria egingo da

Maiatzaren 15a baserriarren eguna da. San Isidro zaindaria dute baserriarrek eta urtean egun batean festa egitekotan zaila da egun hoberik aukatzea. Hori dela-eta, iaz hasitako ohiturari jarraituz, aurten ere San Isidro eguna zeraindarrok elkarrekin ospatzeko aukera izango dugu. Aurten larunbata izaki, herri-bazkaria antolatu du Udalak. Txartelak salgai jarriko dira datozen egunetan eta edaria herriak jarriko du. Animatu eta parte hartu bazkarian!



Iazko afarian herritar asko elkartu ginen umore ederrean

Goierriko eskola txikien festa maiatzaren 8an

Aurki beteko dira bi urte Zerainen Gipuzkoako Eskola Txikien Eguna ospatu genuenetik. Orduko oroitzapenak ahaztu gabe, gure eskola txikiak aurrera jarraitzen du bizi-bizirik, oztopo guztiak gaindituz. Aurten Gipuzkoako eskola txikien festa Altzon izango da, baina Zerainen ere izango da beste ospakizun bat: Goierriko eskola txikien urteko festa. Itsasondo, Olaberria, Gabiria eta Zeraingo eskolek urtero herri hoieta-ko batean egiten duten jaia antolatzea Zeraini tokatzen zaio aurten. Basarte Guraso Elkarteak maiatzaren 8 arratsalderako egitarau bete-betea prestatu du: ipuin-kontalaria, puzgarriak, tailerrak, pedaloak... ez da ezer falta-ko lau herrietako haur, guraso eta irakasleek elkarrekin bailarako eskola txikien festa ospa dezaten.



2006an Zerainen egindako Goierriko eskola txikien festa

Txakurren gorotzak herria apaintzen



Aste bakarrean herrian bildutako txakur-gorotz pila

“Ze herri polita eta txukuna daukazuen!” Hori izaten da Zeraina etortzen zaizkigun bisitarien ahotan gehien errepikatzen den esaldietako bat. Nabarmenak dira herri-guneko lorategiak, belardiak, zuhaitzak, eta abarrak. Baina horiek hain eder egoteko lan asko egiten dute Xabik eta Joseanek. Jakina denez, ordea, garbitasunik errazena zikintzen ez denekoa izaten da. Eta azkenaldi luzean, herriko lorategietan ez-ezik jendea ibiltzen den beste lekuetan ere oso gustagarri ez diren “apaingarriak” ikusten dira: zakurren gorotzak eta kakak. Herria zaintzea eta giza-legez jokatzeko denon egitekoa da, baita txakur-jabeena ere.

Argazkilaritza ikastaroa antolatu du Kultur Etxeak

Argazkilaritza gustuko dutenek edo argazki hobek ateratzeko pista batzuk nahi dituztenek ikastaro labur bat egiteko aukera izango dute Zerainen. Oa Kultur Elkarteak oinarritzko argazkilaritza ikastaroa antolatu du.

Ez da argazkilari aurreratuentzat pentsatutako kurtsoa. Normalean argazkiak ateratzen dituenak argazki hobek ateratzeko gomendio batzuk izatea da ikastaroaren helburua. Maiatzean hasi eta ekainean amaitzea aurreikusten da. Saio praktikoak eta teorikoak uztartuko dira; beraz parte hartzaileek argazkiak aterako dituzte irakasleek gidatuta. Saioren egunak oraindik zehaztu gabe daude eta interesatuekin hitzartuko dira. Beasaingo Fotoetxeok izango dira ikastaroaren irakasleak.

Interesa dutenek apirilaren 23a baino lehen izena eman dezatela udal-letxean (943 801724).



Txitxil-ardoa

Gauza askotarako balio izaten du hizkuntzak. Ez da beti gauza serioak azaltzeko tresna. Are gutxiago informazio hotz, neutral, objektibo hutsa transmititzeko makina. Lagunartean irribarre gozoa egiteko, inoren belarri-ira maltzurkeriazko komentario zorrotza eransteke edo ezker-eskuin adarra jotzeko: horretarako ere behar-beharrezkoa da hizkuntza. Non hasi eta non bukatzen diren argi zehaztu gabeko aipamen zirrargarriak izaten dira, askotan, eguneko hitz-aspertu xumearen grazia eta bizia. Hitz bakar batek gehiago balio izaten du halakoetan, sarri, esplikazio luze eta detailatuak baino. Horrelako zerbaiten aurrean gaude, oker ez banago, *txitxil-ardo* honekin.

Hiztegiara alferrik joango zara, *txitxil-ardoa* zer den bila: etorri ez dator. Ez da guztiz alferrikakoa izango, ordea, zure bilaketa hori. *Txitxil-ardo* ez baina *txitxil* hitza han dator, izan ere. Zeraingo eta inguru hauetako hitza da *txitxil*: Markinatik Oñatira bitartean doan bizkaierazko zona horretakoa batetik, eta Goierri-Goierrikoa bestetik. Zegaman, konkretuki, aspalditxotik jaso dago *txitxil*. Zer esan nahi du hitz horrek? Zehazkiago zer esan nahi zuen, gure inguruotan bizirik zegoenean? Hona hiztegiak zer dioen: "verga, miembro genital del hombre". Araotz-Oñatin, konkretuki, "miembro viril (de persona mayor)". Beste hitzetan esanik, *zakila*. Beraz *zakil-ardo* dugu begien bistan, Zerainen jasotako *txitxil-ardo* horretan. Zergatik *zakil-ardo* hori, eta zertarako? Hori ikusten saiatuko gara, Elenak bildutako argibideak eta han-hemen osatu ahal izan dugun informazio txotxa lagun.

Nahiko galdua dago hitza, Zerainen. Elenaren peskizen arabera, 80 urteko jira-bueltan dago, itxuraz, "jakin / ez jakin" arteko muga argia. Telleriko Joxek eta Aldasoroko Patrik ondo asko dakite *txitxil-ardoa* zer zen. Horiek baino gazteagoa den Jose Mari Etxaluzek, aldiz, ez du gogoan. Berrogeita hamar urte ingurutik beherakoetan, azkenik, bakar batek ere ez.

Ez da erabat egia, halere, muga-muga 80 urteetan dagoenik. Ez da egia, hortik beherako inor hitz horrekin akordatzen ez denik. Xanti Larraondok, adibidez, ez du hitz hori inorekin erabiltzen, baina zer den badaki: "txitxil-ardo zer dek edo zer zuan?" galdetu diogunean oso zehatz erantzun digu, detaile guztiakin. Berak bakarrik ez: Xanti Ganbaratxokoak ere, hasieran ez baina gero, esplikazioa emandakoan, baietz esan digu; "gaztetan oso entzuna genian hitz hori, Ganbaratxon" (taberna omen zuten bertan). Are gehiago: Antonio Gartzia ere esplikazio osoa ez, baina definizioaren lehen erdia bai, argi eman du: "gizaseme gazteen arteko ospakizun bat izaten zela esango nuke". Zer ospatzen zen ez zen akordatzen, baina gizasemen arteko ospakizuna zela bai. Berdintsu gertatu zait, atzo ilunabarrean, Maisueneko Jabierrekin eta Luisekin: erabat ez, baina erdizka-edo gogoan dute *txitxil-ardoa* zer zen. Sagastibileko Txomin ere zerbaitekin akordatzen omen da, Elenaren esanean: Juan Mari anaia, aldiz, ez. Adin-muga justu-justu non dagoen ez da esaten erraza. Nolanahi ere, zeharo galdutzat eman liteke hitz hori, berrogeita hamar urtetik beherako zeraindarren artean. Beste kontu bat ere esan behar da hemen: emakumezkoetan ez dugu ia inor topatu herrian hitz horren berri eman digunik (Ganbarotxoko Juanitak entzuna zuen nonbait, haien tabernan, baina erabili gabea). Badirudi beraz, eta gero ikusiko da zergatik, gizonezkoen artean erabiltzen zen hitza dugula.

Zer zen *txitxil-ardoa*, zer zen *zakil-ardo*? Elenak han-hemen galdetuz atera duen informazioa honako hau da: "neska-laguntzaren ondoren tabernara joandakoan mutilak, bertan zeuden lagunei, egiten zien gonbita, ardo-botilarena". Hori zen *txitxil-ardoa*. Bere irribarre gozoaz esplikatu izan behar dio Joxe Tellerikoak, ja-ja batzuen makuluaz, gorabehera guztia: "neska-laguntza ondo joan ezker, gustora gonbidatzen zuten batzuek behintzat". Sekretua, jakina, "ondo

joan ezker" horretan legoke. Zerk bereizten zuen ondo edo gaiki joatea, trantze horretan? sexu-harremanetan jarduteak, hartan jarduteko promesa hurbilak edo, soil-soilik, ezkondu-takoa hartarako garantiak? Ez naiz gai sentitzen, galdera horri erantzuneteko. Ez naiz kontu horietan aditua. Orduko gazteen sexu-ohitura benetakoan berri jakin beharko genuke korapilo hori askatzeko, eta hori jakiteko bide bakarra orduko (oraindik bizirik diren eta egia berdaderoa, ez komenentziatzkoa) esateko prest leudekeenei galdetzea litzateke bide bakarra. Orduko gazte orain aguretuei, edo haien "bekatu"en berri dakien apaiz-jendeari. Beste iturririk apenas legokeen.

Gauza bat dago, nolana ere, argi: egun osoa ez zuten zeraindar gazteek errezoan pasatzen, hitzez edo egitez. Orduan ere gaztea gazte, eta gogo gogo. Garbi dago, bestalde, gazteen (kasu honetan Zeraingo gizaseme gazteen) artean ez zirela elkarri iskitxo eginez ibiltzen: hizkera gordina, tapakirik gabea, zerabilten beren artean. Zuriari zuri eta beltzari beltz esateko modukoa, beti ere debekuzko egintzaren xarma eta irrika, akuilua eta piper mina hitzetik hortzera astinduz. Horrela ere egiten da hizkuntza handi: barruko desirak, beldurrak, pozak eta tabuak taberna-zuloan agertuz lehenik, lagunarte zabalera kaleratuz gero, herri-giro betean plazaratuz azkenik eta handik aurrera, ahal den neurrian, belaunez belaun transmitituz.

Galdu egin da *txitxil-ardo* hura. Hitza galdu egin dela, bistan da. Botila-ardoaz ospatzeko ohitura ere baietz esango genuke: apenas orain inolako gaztek, neska edo mutil, horrelako trantsizio-erritu jakinik egiteko obligazioa duenik. Zergatik? Sexu-harremanen eta, oro har, gaztetako harreman-bideen eskema soziokultural osoa goitik behera aldatu delako, seguruenik. Horretan ere ez gara ordea adituak, eta hobe izango dugu hortaz isiltzea. Hurrengoan *zozo-mikote*.


Mikel Zalvide eta Elena Mendizabal

Babesetik

MARTXOA	al	ar	az	og	or	lr	ig
	1	2	3	4	5	6	7
Euria (l/m)	1	0	2	0,75	1	0	0
C° altuena	16	17	11	13	12	13	10
C° baxuena	6	4	7	6	4	1	1
	8	9	10	11	12	13	14
Euria (l/m)	13	0	10	2	0,25	0	0
C° altuena	6	7	4	4	11	11	9
C° baxuena	-3	-3	0	-1	-2	3	3
	15	16	17	18	19	20	21
Euria (l/m)	0	0	0	0	0,25	1	2
C° altuena	10	19	21	17	18	11	13
C° baxuena	3	-2	10	9	12	14	10
	22	23	24	25	26	27	28
Euria (l/m)	0	0	7	7	0	0	0
C° altuena	20	21	19	18	17	18	21
C° baxuena	10	6	10	9	13	12	5
	29	30	31				
Euria (l/m)	5	15	12	GUZTIRA : 79,25 l.			
C° altuena	21	17	16	ALTUENA: 21°			
C° baxuena	14	13	4	BAXUENA: -3°			

Udaberria eta kukua

Martxoarekin batera udaberria eta kukua iritsi dira. Hilabete hau elurra-ekin hasi genuen arren, berehala eguzkia eta eguraldi onak ere ailegatu ziren, udaberrian sartzearekin batera. Kukua ere hasia da kantari, esaera zaharrak dioenez, Andra Mari martxo-ko egunean (25a) kukua etorri ez bada, sei idi parerekin Erromara joan behar omen da bere bila. Aurtengoan ez da horren beharrik izango.



Wikipediatik hartutako argazkia. Lezkaría kukuari jaten ematen.

Aizpitako luizian egurrezko lubeta dotorea



Aizpitarako bidearen ondoko murkoan luizia etorri zen neguan. Orain egurrezko lubeta (eskoilera) dotorea jarri diote ura jasotzen duen aska eta guzti. Ikustea merezi duen "artelana" egin dute Jakobak, Xabik, Joseanek eta konpainiak.

Mandio taberna itxita dago oporregatik

Urteko oporraldia hartu dutelako, Mandio taberna itxita dago joan den apirilaren 12az gero. Hiru asteko atsedeenaren ostean, maiatzaren 4an irekiko ditu berriro ateak Mandiok. Bitartean disfruta dezatela Iban, Eider, Kizkitza eta gainontzekoek.

Hainbat txirrindulari lasterketa pasoa

Herri ezberdinetan antolatutako txirrindulari karrera batzuk herritik igaroko dira datozen egunetan. Maiatzaren 1en, Segurako Santa Kruz proba igaroko da arratsaldeko 17:35 aldean Seguratik Aztiri aldera. Hurrengo egunean, igandean, goizean, Bergarako martxa zikloturista pasako da Aztiritik Segura aldera goizeko 9:15 aldera. Geroago berriz, Legazpiko Santa kruz lasterketa bi aldiz pasako da Aztiritik Mutiloa aldera: 11:15 eta 11:57 aldera. Ea jendeak ez duen eragozpen handiegirik!